

EAJ barruko kritikoei elkarlana proposatu die Redondo Terrerosek

Abertzaleek ei duten askatasuna bere jendearentzat eskatu du PSE-EEko buruak

Íñigo Bilbao / Bilbo

EAJren baitan partiduak daraman lan ildo politikorekin ados ez direnak «oldartu» daitezela, Arzallus eta Egibarri hortzak erakutsi eta PSE-EEekin bat egin dezatela nahi du Nicolas Redondo Terrerosek. Dei hori egin zien Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko sozialisten buruak jeltxide kritikoei atzo eguerdian Santurtziko Herriko Etxean Ramon Rubial kide zenari egindako omenaldian.

REDONDO Terrerosek gogor ki salatu zituen euren kide eta ordezkarien kontra azken egunotan izan diren erasoak, bereziki ordu batzuk lehenago Sopelan jazotakoa, eta egoera honen aurrean indar abertzaleek izan duten jarraera gaitzetsiz, sozialistek euren burua «bakardadean» sentitzen dutela salatu zuen Redondok. «Abertzaleek duten askatasuna da guk gure jendearentzat aldarrikatzen ari garena», azpimarratu zuen segidan. Kale borroka deritzan horri «abertzale-borroka» deitu behar zaiola uste du Redondok, euren kontra ari direnak «abertzaleak direlako», eta hori bide delako eraikuntza nazionalaren oinarrietako bat.

Kide santurtziarren aurrean egindako agerraldian, euskal lurraren espainiarta-



TXEMA FERNÁNDEZ / EFE

Ramon Rubial zenari Santurtzian egindako omenaldian egin zituen Redondok adierazpenok.

sun goraipatu zuen Redondok, bai eta bertotik ez dutela «alde egiteko asmorik» ere.

Ibarretxeren huskeriak

Ibarretxerentzat eta honen gobernuko Barne sailburuarentzat ere izan zuen Redondok hitz gogorrik. EAEko lehendakariari Euskal Herriarrok taldearekin eteteko eskatu zion, baldin eta talde horrek ez badu garbiki salatzen indarraren erabilera. Ajuria Eneko buruari azken boladan entzun omen dion gauza «sakon» bakarra euskal futbol selekzioaren gaine-

ko adierazpenak direla argitu zuen. «Huskeria horietaz arduratu beharrean, hobe litzateke lehendakaria herri honetan askatasunean bizi ez garen arduratuko balitz», gaineratu zuen.

Javier Balzari, berriz, «gure askatasuna bermatzen» saia dadila eskatu zion, «erasoak galarazi ezin badira ere, gutxienez saia dadila horretan». Gauzak horrela, datozen egunetan lehendakariarekin biltzeko gogoia erakutsi zuen, bai eta Iturgaitz PPko buruari hori bera egin dezan proposatzeko asmoa ere.

Hilaren 15ean izango den

manifestazioaz ere mintzatu zen PSE-EEko idazkaria, beste modu batez antolatu izan balitz, bakearen alde edo ETArekin kontra deitu izan balitz, bera ere ibilaldian «gustura» izango zela iragarri. «EAJk ezin izan du HBrekiko bereizketa areago eraman», gaineratu zuen.

Rubial zenari egindako omenaldian izan zen, hala-ber, Txiki Benegas. Hizketaldi sosegatuago batean, martxo-ko hauteskundeak izan zituen hizpide, ustez orduan lortuko dutelako, bototan irabaziz, jeltxideen apustu politikoa indargabetzea.

Cotinoren ustez, ETak hil nahi badu, «zaila izango da beti eragozte»

■ ETak lapurtu zuen kotxea «ziur asko» Euskal Herrian dagoela esan du

Erredakzioa / Donostia

JUAN COTINO Espainiako Poliziako zuzendari orokorrak Zaragozan esan duenez, nahiz eta Espainiako Poliziaren helburu nagusia ETak delituak gauzatzeari —batez ere hilketak— ekiditea den, «hiltzeko benetako asmoa baldin badu zaila izango da beti ekiditea, eta inoiz bere helburua ez lortzea oso zaila izango da».

Hala ere, ETak su-etenaren amaiera iragarri zuenetik, Espainia eta Frantziaren arteko mugako leku guztietan zaintza areagotu egin dela esan du Juan Cotinok.

Espainiako Poliziaren 2.000 urteko plangintza-aren aurkezpenean egin ditu adierazpen hauek Juan Cotinok. Bestalde, ETak ustez lehergailu moduan erabiltzeko lapurtu zuen *Ford fiesta* txuria «seguru aski» Euskal Herrian dagoela esan du, baina «badaezpada» Espainiara ere hedatu dute bilaketa. Zailtzat jo du, era berean, ETak Zaragozan komando bat izatea, baina uste hau ezin dela erabat ziurtatu esan du, erakunde armatuak «bere ideologiarekin bat datorren gazte jendearekin kontaktuak dituelako».

Lehergailu batek eztanda egin du Berangon PSE-EEko militante baten etxean

Erredakzioa / Donostia

ETXEAN egindako lehergailu batek eztanda egin zuen atzo Berangoko Kurtxes kaleko 2. zenbakian. Etxe horretan, Jose Benedicto Herrero PSE-EEko militantea bizi da, eta leherketaren ondorioz bere etxeko atea eta solairu bereko beste bi ateak hautsi egin ziren.

Jazoerak atzo goizaldeko ordu biak aldera gertatu ziren. Laugarren solairuko eskailera buruan aerosolezko bi potez eta bolboraz eginitako lehergailu batek eztanda egin zuen, eta zenbait kalte material eragin zituen.

Jose Benedicto Herrero 75 urteko PSE-EEko militantea

atentatu batean zaurituta gertatu zen 1994. urtean. Orduan, Berangoko batzokian gertatu zen eraso, eta Espainiako Poliziako agente bat hil zen.

Eraso horren ondoren, Leopoldo Barreda Bizkaiko PPko lehendakariak zera adierazi zuen: «Intolerantzia eta faxismoaren beste agerraldi bat da; hain zuzen gure herrian bakea eta askatasuna nahi ez dutenek eragindakoa». EAJri ere erreferentzia egin zion. Alderdi nazionalistaren jarrera «demokraten-tzat dezepzioa» da Barredaren ustez, «ekintza hauen aurrean beste alde batera begiratzen duelako eta aldi

berean HBko munduarekin harremanak estutzen dituelako». Iñaki Anasagasti Espainiako Kongresuko EAJren ordezkariak, aldiz, ekintza hauekin zerikusirik ez dutela esan du, hala nola inork ekintza hauekin zer-bait lor dezakeela pentsatzea oso larria dela.

Erasoak Bilbon eta Hernanin

Berangokoa, ordea, ez da izan egunotako eraso bakarra. Ostiral arratsaldean, aurpegia kaputxaz estalita zeraman talde batek zakarrak gordetzeko edukiontzia erre, barrikadak jarri eta



LUIS TEJIDO / EFE

Leherketaren ondoren, PSE-EEko militantearen etxeko atariaren irudia.

autobus bat geratu eta kristalak hautsi zizkieten Bilbo-ko Alde Zaharrean—Ribera inguruan—, Ertzaintzak jakinarazi zuenez. Goizaldeko 3:45ean, berriz, Hernanin

jazo zen beste eraso bat. Airtel enpresako errepikagailu bati eraso zioten. Kalte gutxi eragin zizkieten, eta arazorik gabe jarraitu zuen funtzionatzan.